

# txintxarri

## Ez daitezela 11 egun soilik izan

Ongi hasitakoa hobeto bukatuko dute: 3.000 pertsonak eman dute izena Euskaraldian / 2-4

TXINTXARRI

## Larunbataz gozatzeko

Prest dauka Jalgune elkarteak hamabigarren jaialdi koloretsua / 8-9

**Alderdi politikoak  
elkarri mokoka,  
hauteskunderako  
sei hilabete falta  
direnean** / 6-7

**Lasarte-Oriako  
zazpi lasterkarik  
lortu dute helburua:  
Donostiako maratoia  
amaitzea** / 10



txintxarri

**GABONETAKO ALE BEREZIAK  
ABENDUAREN 21AN ETA 28AN**

Zure iragarkia jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus  
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

# Euskaraldia jai giroan hasi da

Hizkuntza ohiturak aldatzeko 11 eguneko ekimenean murgildu da Lasarte-Oria asteburuan. Iritsi da Euskaraldia herrira; koloretsua izan da hasiera ekitaldia. Izen emateak 3.000ko langa gainditu du, hamaikakoaren osteguneko pintxo-poteari esker

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Mary Jong ikuskariak esan du: Lasarte-Oriak dauzka koloretako puntu gehien. Gurea da Guinness errekorra. Euskaraz gehien aritzearen errekorra lortuko dugun ala ez ikusteke dago oraindik, baina ez da izango herritarrek saiateren ari ez direlako. Kazetariaren irudipena izango da akaso, baina esango luke ostiral arratsaldetik gehiagotan entzuten duela euskara kaleetan, tabernetan, plazetan eta toki guztietan. Hori da hasi berri den Euskaraldiaren funtsa: hizkuntza ohiturei astinaldi bat ematea eta bakoitzak bere buruari erronka hori jartzea. Abenduaren 3ra arte eramango dituzte Euskal Herri osoko biztanleek *ahobizi* eta *belarriprest* txapak. Baina Euskaraldiaren sustatzaileek ez dute nahi dena 11. egunean bukatzea. Amets Arzallus bertsolariak behin eta berriro esan du hamabigarrena izango dela denetan garrantzitsuena.

Duela bi urteko Euskararen Maratoia eta gero egindako ariketaren oihartzuna nabaritzen da oraindik. 3.000 pertsona inguruk eman dute izena Euskaraldian aritzeko. Hain zuzen, hamaikakoa

ostegun iluntzeko pintxo-potea baliatu zuen azken parte hartzaileak lortzeko.

Ane Igartipuntu aurkezle famatuak eman zuen *txapinazoa*, ostiral arratsaldeko zazpitan. Hamaikakoko kideek lagunduta, koloretako globo bana lehertu zuten, hamabi kontatzeraino. Orduan lehertu zen festa.

## Igartipuntuk, txapinazoa

Bien bitartean, lanean ari ziren boluntarioak, azken orduan izena eman nahi zutenei laguntzen eta dagoeneko emana zutenei txapak banatzen. Konfetiak Okendo plaza hartzerako motorrak bero zituzten hamaikakoko kideek, 17:30ean jarri zirelako martxan: kontatu zuten zer den Euskaraldia beraientzako, eta, hegazkin laguntzailez mozorrotuta, ekimenean parte hartzeko jarraibideak eman zituzten.

Hainbat diziplina igo ziren plazako oholtza gainera: bertsoak, antzerkia, musika eta dantza, besteak beste. Hasiera ekitaldia ez zuten galdu Earra! bertso eskolak, Kukuka antzerki eta dantza eskolak, Erketz dantza taldeak eta herriko ikastetxeetako neska-mutiek. Denek jarri zuten

hondar aletxoak hasiera ekitaldiari distira emateko.

Letrarik ez duen abesti bat lasarteoriatarren bihotzera sartu zen duela bi urte: Safri Duo taldearena. Presente egon da Euskaraldiaren lehenengo egunetan ere. Agus Mujikak sasoiak jarraitzen duela erakutsi zuen beste behin, eta dantzan jarri zuen Okendo plaza. Hasiera ekitaldia ezin zen hobeto bukatu.

Larunbatean askorako eman zuen goizak: Porrotx pailazo bihurriak hankaz gora jarri zuen Okendo, bere hitz-joko, broma eta magia trukoekin. Musika eta dantza ere ekarri zituen: *Euri Tanta* dantzatu zuten aurrena, eta *Pausoka, pausoka* gero, Jalguneko lagunekin batera.

Horrezkero gorputzak berotuta zituztenez, gustura egin zuten dantza Ttirriki Ttarraka taldeak eskainitako erromerian. Ostean, Xumela abesbatzako kideek euren erreperatorioko onena eskaini zuten. Safri Duorekin bukatu baino lehen, *Egiozu euskaraz* eta *Ahoa bizi-bizi* abestien erritmora kantatu eta dantzatu zuten guztiek.

Puntual hasi da Euskaraldia: iritsi da erronka Lasarte-Oriara. Ez daitezela soilik 11 egun izan.



Hamaikako kideek eta hainbat lagunek eman diote hasiera Euskaraldiari. Musika eta umorea izan dira



Herritarrek txapak jaso eta izena emateko aukera izan dute. TXINTXARRI

**EUSKARALDIA**  
11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARAK  
**365**  
EGUN

Munnteri AEK euskaltegia  
Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
607 62 52 33 - lasarte@aek.eus  
www.munnteri.blogspot.com.es

Egin klika eta eman izena!

**aek**  
euskara praktikoa



Porrotxen eta hainbat lagunengandik bisita jaso du hamaikakoak larunbatean. TXINTXARRI



Mary Jong Guinness ikuskari berezia eta bere laguntzaile izan dira Okendon. TXINTXARRI



agusi. Etxeko txikiek ederki egin dute dantza. TXINTXARRI



Bertso eskolako, institutuko eta Gitanillas taldeko gazteak izan dira oholtzan. TXINTXARRI

**TTAKUNALDIA**  
**365 egun euskara**  
**sustatzeko ekitaldia**

ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

**EUSKARALDIA**  
 EUSKARAZ EGINGO DUGU!

**Landaberri**  
 IKASTOLA  
 LASARTE-ORIA

**PUN TU**

**ORIARTE**  
 Institutua

**EUSKARALDIAREKIN!**

Gure ahobizi eta belarriprest txapak

**LARREKOETXE ERAIKINA**  
 BUENOS AIRES ALDAPA, 1

**LANDABERRI ERAIKINA**  
 PINTORE KALEA, 2

**Sasoeta-Zumaburu**  
 herri-ikastetxea

**EUSKARALDIAREKIN BAT**

egiten dugu!

Kalbario bidea 4, Tel. 943 36 12 26 eta Zumaburu 13, Tel. 943 36 22 74

# Euskaraldiko esperientziak

'Ahobizi' edo 'belarriprest' izan, denek nabaritu dute aldaketa Euskaraldiaren eraginez. Ohiturak aldatzea asko kostatu arren, askori jarrera aldatzeko balio izan die 11 eguneko ariketa sozialak. Ekimeneko azken egunak falta dira oraindik, Euskararen Egunera arte. Hala ere, hamabigarren eguna izango da giltza



#ahobizi  
naiz



**Jokine Arrieta**  
Ahobizi

Kanpaina honek bere eragina baduela uste dut. Aurreko ekimenean bizilagun bat haserretu zitzaidan, euskaraz egitera pixka bat behartu nuelako. Orain iloba ikastolan du. "Nola gustatuko litzaidake euskaraz zuk bezala hitz egitea", esan zidan lehengoan. "Ni bezala ez, baina ahal duzun gutxi hori egin dezakezu", erantzun nion, eta oso kontentu jarri zen.



**Jose Luis Mendiluze**  
Ahobizi

Nik etxekoekin dena euskaraz egiten dut, baina kuadrillan gazteleraz egin behar dugu, euskaraz ez dakien jendea dugulako. Pixka bat ulertzen dute, baina ohituragatik beti gazteleraz egiten dugu horiekin. Ni beti bezala ari naiz egun hauetan, ez dago aldaketa askorik. Jendea euskalduna denean euskaraz egiten dut; ezin bada, ba gazteleraz.



**Fernando Baile**  
Belarriprest

Nire kuadrillan gehienek euskaraz dakite, eta bakoitzak nahi duen hizkuntza erabiltzen du. Bestalde, txistulari talde batean ere banago, eta han denek euskaraz hitz egiten dute. Haiek entzun eta nik ahal dudana hizkuntzan erantzuten diet. Ez dut arazorik euskaraz hitz egiteko, baina zaila da, kosta egiten zait, mantso hitz egiten dut. Beste arazorik ez dut. Horregatik, erosoagoa dut gazteleraz hitz egitea.



**Txema Valles**  
Belarriprest

Ni saiatzen naiz jendeak niri euskaraz egitea. Norbaitek bat batean harrapatzen banau, eta azkar hitz egiten badit, zaila egiten zait. Baina egun hauetan konturatu naiz saiatzen banaiz zerbait ulertzen dudala. Beste egunean esperientzia egin nuen; lagun bati euskaraz hitz egiteko esan nion. Guztia ulertzen nion; azkarrago egiteko esan nion.



**Rosa Tejado**  
Belarriprest

Euskaraldiak txipa aldatzeko balio izan dit. Kontzientzia gehiago hartzen dugu horrelako ekimenekin. Jendeak gai honekin bat egiten duela dirudi, balkoietan puntuen kartel asko ikusten dira, baita jendea txapekin ere. Batez ere, nire antzekoentzat, txapen ideia lagungarria da. Euskaraz egiterakoan konfiantza ematen dit txapa duen jendeari egitea.

#belarriprest  
naiz



ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)  
ABENDUAK 15, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Lan  
berriaren  
aurkezpen  
emanaldia

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

azoka@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak  
Usurbilgo Taldea

ARGIA

www.katxiporreta.eus  
https://es-es.facebook.com/pirritx.porrotx.eta.marimotots

eta 12.ean...

**Aldatu** al ditugu  
ohiturak taldean?

**Merezi** izan al  
du probatzea?

Atzean geratu al  
dira **aurreiritziak**?

**Eroso** al gaude  
ohitura berriekin?



Ahobizi izaten jarraituko dut,  
**eutsi** egingo diot euskarari

Belarriprest izaten jarraitu  
nahi dut, euskara **eskatuz**

Abenduak 4, 5, 6....

EUSKARAK  
**365**  
EGUN

**IZAN PUNTU!**





Jon Antxordoki, EAJko zinegotzia, diru laguntzei uko egiten dion alkatetza dekretua erakusten. TXINTXARRI

## Ikastetxeak berritzeko laguntza galdu du udalak

EAJko Jon Antxordokik salatu du Landaberri eta Sasoeta berri ahal izateko 430.000 euroko diru laguntzari uko egin diola udalak. Jesus Zaballos alkateak "demagogia" egitea leporatu dio, eta esan du 2019an egingo direla lanak

### Txintxarri

Udalak Sasoeta ikastetxeak fatxada eta estalkia eta Landaberri ikastolako estalkia aldatzeko aukera izan du, baina ez ditu Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak aprobetxatu. Horixe salatu du Jon Antxordoki EAJko zinegotziak. Haren kalkuluen arabera, guztira 430.000 euroko diru laguntzari uko egin dio Jesus Zaballos alkateak. "Diru asko da. Pena da, lan horiek egiteko premia badago eta".

Ikastetxeak udalaren menpeko lurretan daude, baina Hezkuntza sailari dagozkion zentroak direnez, Eusko Jaurlaritzak finantzazioan laguntzen du. Hain zuzen, %60 bere gain hartzen du. EAJk erakutsitako alkatetza dekretuan ikusten denez, udalak eta EAeko gobernuak akordioa zuten Sasoeta eta Landaberri ikastetxeak berritzeko.

Honenbestez, Sasoeta ikastetxeak fatxada eta estalkia berritzeko 269.000 euro jartzeko prest zegoen Gasteiz. Eta

Landaberri ikastolako estalkia aldatzeko, 162.000 euro emateko. Alegia, guztira 431.000 euroko diru laguntzaz aprobetxatu zitekeen Lasarte-Oriako Udala. Laguntza 2018ko martxoan hitzartu zuten, baina obrak egin ez direnez, udalak ez du dirudik jasoko.

### Aurrekontuetatik kendu

"Zaila da ulertzea Zaballos jauna ez gai izatea bi obra garrantzitsu horiek kudeatzeko, bereziki Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak azken urteetan Lasarte-Orian egin dituen eta egiten ari den inbertsioak kontutan hartzen baditugu: Garaikoetxeako jantokia, Oriarteko lehen zikloko eraikinaren estalkia, institutuko jantokia, eta Zumaburuko estalkia eta hainbat berriztatze lan", esan du Antxordokik.

Landaberriko estalkia 2018ko aurrekontuetan sartu zuen EAJk, baina kendu gero,

alkateak hala eskatuta, aurrekontua orekatzeko. "Lasarte-Oriako EAJ-PNV udal taldeak Zaballos jaunari kudeaketa kontuetan ardura eskatu nahi dio".

### Alkatearen erantzuna

Jesus Zaballos alkateak "hauteskunde kutsua" hartu dio EAJren salaketari. "Sei hilabete falta dira, eta EAJ hasi da demagogian eta populismoan". Alkateak azaldu du aurrekontuetan diru sorta hori jarri ez zuten, ezin izan direla lanak hasi. "Landaberri eta Sasoetako zuzendariekin hitz eginda dago, lanak 2019an hasteko. Diru laguntza hori urtero aprobetxa daiteke".

Gainera, EAJri "koherentzia politikoa" eskatu dio. "2018ko aurrekontuetan emendakina jarri zuen, baina gero kendu". Halere, onartu du udalaren "akatsa" izan dela diru laguntza hori eskatzea, ondoren baliatzerik izan ez duelako.

## Pintxo bereziak dastatzeko aukera egongo da asteburuan

Pintxo ibilbidea egingo dute asteburuan herriko zortzi tabernak; bi eurotan dastatu ahal daiteke jaki berezia

### Txintxarri

Aterpea elkarteko ostalariek beste behin antolatu dute pintxo ibilbidea. Ostiral arratsaldean, eta larunbat eta igande eguerdian dastatu ahal izango dira pintxoak, ondoko tabernatan: Araeta, Lasarte, Buenetxea, Eguzki, Txartel, Lavie eta Viña del Mar. Bi eurotara jarriko dituzte pintxo berezi horiek, bakoitzak berea. Ostegun goizean Ramon Roteta sukaldariak pintxo irabazlea aukeratu zuen. Horrez gain, kontsumitzaileek ere izango dute aukera haien onena aukeratzeko. Gainera, parte hartzaile guztien




Ramon Roteta, Semblanten. TXINTXARRI

arte 200 euroko saria zozketatuko dute.

## Azkar pasatzen dira hiru ordu

Nerea Marcosek irabazi du Aterpea merkataria eta ostalarien elkarteko zozketa. 1.000 euro hiru ordutan gastatu ditu ostegunean, herriko komertzioetan. Denda bakoitzean gehienez ehun euro gastatu ahal izan ditu, baina zerbitzuak eskaintzen dituztenetan, beste egun batean kontsumitu ahalko ditu. Deskapotable batean ibili da dendaz denda.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Gabonetako jaiotza lehiaketa

Danak Kidek martxan jarri du Gabonetako jaiotzen lehiaketa. Neurritz gehienez 80x60 cm.-tako izan behar dute. Adinaren arabera lau kategoria egongo dira. Jaiotzak abenduaren 19an eta 20an utzi behar dira elkarteetan. Ikusgai egongo dira San Pedro elizan, eta sarituak Muebles Azpeitian. Dirutan sariak egongo dira. Parte hartzaileek hamar euro jasoko dituzte.

# Aurrera doa Leroy Merlin eraikitzekeo prozesua

Lasarte-Oriako eta Donostiako lurrak bateragarri egiteko behin-behineko plana onartu du udalbatzarrak. EH Bilduren eta PSE-EEren arteko talka sortu du periferiako saltoki handien gaiak. Herri eredia arriskuan ikusten du Pablo Barrio bozeramaileak

## Adrian Garcia

Beste urrats bat egin du udalbatzarrak Leroy Merlin altzarien saltoki handia Lasarte-Oriako lurretan eraiki ahal izateko. Ez ohiko biltzarra egin zuten joan den asteazkenean, eta zinegotzi gehienek Donostiako lurrak udalerrikoekin bateragarri egiteko behin-behineko plana onartu zuten. Beste behin, PSE-EEko udal gobernuaren eta oposizioko EH Bilduren arteko talka sortu zuen gaiak. Izan ere, Pablo Barrio bozeramaile abertzaleak salatu du udalaren proiektua "ingurumen eredu jasangarriaren" aurkakoa dela.

Lasarte-Orian ezarriko diren multinazionalei buruzko eztabaida ez da berria, baina oraindik soka luzea ekarriko du, prozesua aurrera joango den heinean. Leroy Merlin Errekalden, eta Lidl, Norauto eta B&B hotela Michelin eraikiko dituzte hurrengo urteetan. Horren aurka egiteko, Barriok gogora ekarri du EH Bilduk gobernatzen duen Usurbilgo Udalaren eredia. Michelinen Gureak eta Elkar industriak jarriko dituzte. "Euskal Herriko enpresak; etekinak hemen utziko dituzte, eta lanpostuak sortu. Kultura



Bateragarritasunaren planaren aldekoak bozka ematen. TXINTXARRI

banatzen duen enpresa bat da". Gainera, EH Bilduren arabera "sekretismo osoz" eraman dute proiektua.

Agustin Valdivia PSE-EEko Hirigintza zinegotziak erantzun dio oposizioari. Oroitarazi dizkio EH Bilduk gobernatutako beste udalek erakarritako multinazionalak: "Urbil Usurbilen, eta Leroy Merlin bera eta Carrefour Oiartzunen". Horrenbestez, "koherentzia politikorik eza" leporatu dio koalizioari. "Proiektu hori Lasarte-Orian ez bagenuen

egingo, berdin-berdin egingo zuten beste toki batean".

Bestalde, Promociones Lanondo-Construcciones Mariezcurrena eta udalaren arteko hitzarmen aldaketa onartu zuten, aldeko zortzi botoekin eta zazpi abstentziorekin. EH Bilduko Kristina Bernal eta ADLOP Ahal du Lasarte-Oria Pudeko Alicia Garcia ez ziren batzarrerara bertaratu.

Azkenik, Euskaren Eguneko adierazpen instituzionala onartu zuten udalbatzarrak, aho batez.

## Atsobakar, bost egunez greban

Azaroaren 26tik 30era bitartean lanuzteak egin dituzte Atsobakar egoitzako langileek; asteazken goizean ELA sindikatuak Okendon deitutako mobilizazioan parte hartu zuten. Gipuzkoako erresidentzietako langileak hitzarmena negoziatzen jarraitzen dute, baina azken bi asteetan patronalaren aldetik "inolako mugimendurik" ez dela egon salatu dute.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Indarkeria matxistaren aurka

Azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren aurkako egunean, kontzentrazioa egin zuten Okendo plazan, emakumeen aurkako jazarpena amaitzeko eskatzeko. Udal ordezkarietz gain, beste hainbat herritar ere gerturatu ziren plazara.



TXINTXARRI

## Kultura elikatzen, Sasoetan

Gimnasio bat zen, baina puntako jatetxe bat zirudien. Batez ere, zegoen usain goxoarengatik. Hainbat kultura nahastu eta ezagutu dituzte asteburuan, gastronomiaren bidez: dozenaka plater dastatu dituzte Sasoeta ikastetxera joan diren herritarrek bazkari multikulturalaren seigarren edizioan.

## Gazteen ziber-eskubideak lantzeko ekintzak, Gaztelekuan

Azaroaren 20a Haur eta Gazteen Eskubideen eguna izan zen, eta hori baliatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak gazteen ziber-eskubideak lantzeko ekintzak egitera gonbidatu zituen udalak.

Lasarte-Oriako Udalak, herriko gazteen sentsibilizazioa eta sare sozialen erabilera egokia sustatzeko helburuarekin, #Eman Like Gaztelekuari ekimena antolatu du 13 eta 17 urte arteko gazteentzat. Larunbatean, abenduaren 1ean, DJ eta hip hop

tailerrak egingo dituzte. 17:30ean, Unai Muguruza La Furiaren DJ-ak ikastaroa eskainiko du; 18:30etatik aurrera, berriz, Go!azeneko Leire Urquijo dantzariak hip hopeko oinarrizko pausoak irakatsiko ditu.

Ikastaroetara hurbiltzen diren gazteek bi pertsona ezagun horiek haien sare sozialak nola kudeatzen dituzten ezagutuko dute. Solasaldirako tartea ere izango da.

Horiez gain, aste honetan zehar, Gaztelekuan egiten ohi diren ekintzetan ziber-eskubideak eta betebeharrak landu dituzte hainbat dinamiken bidez.

# "Urduritasuna nabaritzen hasi gara, baina emanaldi polita aterako dela ziur gaude"

## JALGUNE ELKARTEA

Emanaldi aurreko azken entseguak besterik ez zaie geratzen Jalgune elkarteko kideei aurtengo jaialdirako. Larunbat arratsalde ederra antolatu dute, hamabigarrenez

### Maddi Zaldua

Ileak tente jartzeko modukoak izaten dira Lasarte-Oriako Jalgune elkartearen urteroko jaialdiak. Koloretsuak bezain alaiak, eta ez da gutxiagorako izango larunbat honetakoa ere. Hamabigarrena ospatuko dute aurten, eta "ederki pasatzeko modukoak" izango dela iragarri dute. *Guri... nos gustan los sabados...eta zuri?* lelopean, gozatzeko arratsaldea izango da biharkoa. Abenduaren 3a, Aniztasun Funtzionalaren Nazioarteko Eguna "beste modu batera" ospatzeko sortu zuten jaialdia, eta gaur egun, elkartearen urteroko hitzordu nagusienetako bat bihurtu da.

Azkeneko "prestaketa txikiak" amaitzeko dituzte, eta "gogotsu"

dira ospakizunerako. Ikasturtea hastearrekin batera hasi ziren jaialdian pentsatzen: "Irailean hasi ginen ideiak botatzen eta pixkanaka, denon artean osatu dugu ikuskizuna", azaldu diote Jalguneko kideek TXINTXARRI-ri; Imanol eta Carlos Timon anaiak, Marga eta Kontxi Zubimendi ahizpak, Oscar Guinaldo eta Joserra Gonzalez bildu dira aldizkariarekin. Asteburu pasa bat ere egin berri dute, prestaketa orokorrak egin eta emanaldia fintzeko. Orain, kultur etxeko areto nagusian ari dira azken entseguak egiten, eta nerbioak ere nabaritzen dituzte dagoeneko: "Urduri gaude, baina dena oso ondo aterako da".

Aste gutziko neketik indarberritu eta lagun artean



Jalguneko kideak azken entseguak egiten ari dira egunotan kultur etxeko areto nagusian. TXINTXARRI

igaro ohi dituzte larunbatak Jalgunen: "Astearte, ostegun eta ostiralean ere klubean elkartzen gara, eta oso ondo pasatzen dugun arren, larunbatak bereziki onak

izaten dira". Iratzargailurik gabe esnatu, eta goiza patxadaz igaro ostean, bazkaldu eta gero joaten dira elkartera. "Milaka esperientzia bizi eta

elkarbanatzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu Jalgunek".

Elkartean bertan antolatzen dituzten jarduez gain, herriko ekintza askotan ere parte hartzen dute. "Beste zenbait ekintzen artean, Inauterietako karroza prestatzen dugu, Ostadarreko ekintzetan parte hartzen dugu, San Pedro jaietako danborradan ere ateratzen gara, eta baita Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreran ere". Gustuko dute horietan aritzea: "Herriar ugari ezagutu ditugu, eta beraiek gu ezagutzeko aukera politak sortu ditugu, ate asko zabaldu dizkigu elkarteak".

## Elkarri zorion abestia euskaraz abestuz

Semblante Andaluz elkarteak askotan esan izan du Jalgune eta biak "familia bat" direla. Halaxe sentitzen dute. Bi elkarten arteko harremana estua izan da betidanik, eta askotan parte hartu dute bata bestearen emanaldietan.

Semblanteko kide Jose Perezek zorion ospakizunetarako abesti eder bat sortu zuen orain urte batzuk, eta Semblante Rociero abesbatzak hainbat emanalditan abestu du. Horrela ezagutu zuen Jalgunek abestia; zorion ospakizun batean abestu zieten. Horrela, Semblantek urteurrena ospatzen zuela aprobetxatuz, abestia ikasi zuten Jalguneko lagunek, eta ospakizun ekitaldian abestu zieten Semblantekoei. Gaztelaraz abestu bazuten ere, estribiloko zatia euskaraz abestu zuten. Hortik etorri



Jalguneko eta Semblanteko kideak abestia grabatu zuten egunean. TXINTXARRI

zen euskararatzearren ideia. Horretarako, Jon Maia bertsolariari laguntza eskatu, eta harek itzulitako abestia oparitu zioten iragan urtean. Jalgunek Xumelarekin batera abestu zion abestia Semblanteri, jaialdian.

Orain, berriz, opariaren bigarren zatia iritsi da. Azaroaren 10ean euskarazko bertsioa grabatu zuten Usurbilen.

Grabazioari azken ukituak egiten ari dira, eta datozen egunetarako izango dute prest.

**"MILAKA ESPERIENTZIA EDER BIZITZEKO AUKERA EMATEN DIGU JALGUNEK"**

**"ASTEKO EGUNIK GUSTUKOENAK DIRA LARUNBATAK; LASAI ESNATU ETA KLUBEAN ELKARTZEN GARA"**

Zorionak zuri  
zorionak zuri  
denok opa dizugu  
zorionak beti

Irri bat  
aurpegi alaia  
ederragoa urrea baino  
zure urtebetetzean  
otar bat lorez bete goraino

Aurpegi hori ikusita  
bizitza pozten didazu  
politza izateaz gain  
zure bihotza zera zu



Lasarte-Oriako elkarte askok parte hartzen dute urtero Jalguneren jaialdian, eta aurten ere gonbidatuekin batera arituko dira oholtzan: "Zabaleta Auzolaneko lagunekin dantza egingo dugu, baita Semblante Andaluzekoekin ere". Ttakun Kultur Elkarteko Gazteklubeko lagunek ere magia erakustaldi bat eginez parte hartuko dute. "Poz handia da guretzat Lasarte-Oriako elkarteekin batera

milaka ekintzetan elkarrekin aritzea".

**Hogei urte baino gehiago**

1991. urtean ireki zituen elkarteak atea. Oso ondo gogoratzen dituzte oraindik ere garai horiek sorrerako urteetatik gaurdaino dabilzan kideek: "Zumaburuko eliza azpiko lokalean biltzen ginen". Gure Ametsa izenarekin jaio zen elkarte, baina urte batzuen



buruan Jalgune izatera pasa zen. Zumaburutik liburutegi zaharrera lekualdatu ziren, eta

azken urteetan Beko kalen dute txokoa.

Ez dute euren bizitza elkarerik gabe irudikatu ere egin nahi. Urte hauetan guztietan egindako ibilbideak "indarra eta ausardia" eman die, eta Jalguneko begiraleekiko begirunea ere nabaria da. Taldearekin egindako "lan handia" goraiatu dute, eta ohartu dira lan horri esker lortu dutenaz: "Elkar errespetatzen eta entzuten ikasi dugu, lagun

talde bat gara eta oso gustura egoten gara elkarrekin".

Ilusioa eta poza transmititzen dute egiten duten ekintza bakoitzean, eta ingurukoek ez dute gozatzea baino beste aukerarik eurekin. Horregatik, larunbat arratsaldeaz gozatzeko gonbita luzatu diete herritarrei, kultur etxera gerturatu eta jaialdiaz elkarrekin gozatzeko: "Ziur gaude denok elkarrekin oso ondo pasako dugula".

# PIRRITX, PORROTX eta MARI MOTOTS

**disco-liburua**

**disco-posterra**

+

**BOROBILEAN DVD bikoitza**

**DVD1: ikuskizuna**

**DVD2: 12 bideoklip**

**FAMILIEN karta-jokoa**

**FAMILIA MILAKOLORE bilduma: kartoizko 4 ipuin**

[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)

Oria etorbidea, 10  
Brunet Eraikina 5, E-4  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 368 404

# Txanponaren bi aldeak Donostiako maratoian

Zazpi herritarrek amaitu dute maratoia, errepideko denboraldiko azkenetariko proba. Sakrifizio asko eskatzen du horrelako proba baterako prestaketak. Entrenamenduak zehatz mehatz bete arren, helburuak ez dira beti lortzen

## Adrian Garcia

Atletismoan distantzia mitikoa da maratoia, kondaira, istorio eta balentria ugariri lotuta baitago. Horregatik, beharbada, erakargarria egiten zaie korrikalari askori. Halere, hilabete luzeko entrenamenduak eta sakrifizioa eskatzen ditu. Prestaketa ongi burutzen bada, normalena da emaitzak ailegatzea. Baina ez da zientzia zehatza. Alegia, lasterketa egunera ongi iritsita ere ez da ziurra helburuak betetzea. Lasarte-Oriako bi korrikalariren adibideek erakusten dute hori. Aitor Otamendik helburua betetzea lortu du, hiru ordutik jaitsita (2:59:14). Mari Carmen Olasok, aldiz, erorikoa izan zuen 27. kilometroan, eta bertan behera utzi behar izan zuen lasterketa minagatik. Guztira herriko zazpi korrikalari helmugaratu dira.

"Pena handia izan da", kontatu dio Olasok TXINTXARRI-ri. Izan ere, sasoi betean zegoen. Lasarte-Oriako lehen herritarra izan

zen Behobia-Donostia lasterketan (TXINTXARRI-ren 1.441 zenbakiko 12. orrialdean oker agertzen da datu hori). Gainera, Beteranoa II kategorian hirugarren egin zuen lasterketa horretan.

Ongi ezagutzen du Olasok Donostiako maratoia. Baten batzuk eginak ditu, baita trofeoak irabazita bere kategorian. Joan den igandean ere podiumean sartzeko lehian zebilen, baina belauneko minak ez zion utzi jarraitzen. "Orain pixkanaka-

pixkanaka errekuperatu behar dut".

## "Hiru orduko obsesioa"

Txanponaren beste aldea da Otamendik bizitakoa. Entrenamenduetan ez du sentsazio onik eduki, eta maratoiaren lehen zatian ere ez da gustura ibili. Haatik, egoerari buelta eman zion, atzetik aurrerako lasterketa egin. "Herriko beste birekin batera egin nuen lehen maratoi erdia. Baina konturatzerako, nahi baino motelago nenbilen". Lehen zatia 1:31 denboran osatu zuen; helburua betetzeko baino minutu bat motelago.

23. kilometroan sentsazio txarrak alboratu, eta erritmoa igo zuen Otamendik. "Taldea on bat hartu nuen, eta aurrera egin nuen". Koinatuak lagundu zuen ibilbidearen zati handi batean, bizikletaz. "Gozatzen nindoan, beste lasterkariak pasa eta pasa".

Azken itzulian, Gros inguruan, erritmoa beste puntu bat igo, eta aurrera egin zuen. "Taldea



Aitor Otamendi, Donostiako maratoian. ION ZUGASTI

bat bestearen atzetik joan nintzen hartzen". Esan ohi dute 30. kilometrotik aurrera topatzen duela korrikalariak maratoiko horma, nekeak eta esfortzuak eraginda gainbeheran hasten denean. Baina ez zitzaion horrelakorik gertatu Otamendiri. "40-41. kilometroan aldapatxoa dago, eta hor ere estutu nuen. Azken kilometroa lau minutu azpitik egin nuen".

Marka egin eta ospatzeko denbora izan zuen. 11 maratoi

egin ditu Otamendik, eta beste batean ere jaitsita du hiru ordutik. Halere, onartu du "obsesio moduko bat" izan duela denbora. "Ez naiz ibili ongi entrenatzen, eta batzuetan blokeatu ere egin naiz". Horregatik, lasterketa osteko poztasuna "ikaragarria" da. "Marka hobeak dut maratoian (2:57), baina oraingoan satisfazioa askoz ere handiagoa da. Bi ume dauzkat, eta ez naiz horren fin ibili entrenatzen".

## Herritarren sailkapena

|                   |         |
|-------------------|---------|
| Aitor Otamendi:   | 2:59:14 |
| Igor Sevillano:   | 3:10:51 |
| Alfredo Cidoncha: | 3:23:05 |
| Miguel Granado:   | 4:00:46 |
| Mikel Garcia:     | 3:29:20 |
| G. Urruzmendi:    | 3:50:46 |
| Mikel Ormazabal:  | 4:36:59 |

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

|   |
|---|
| <b>FUTBOLA</b>  |
| <b>ERREGIONAL OHOREZKO MAILA</b>  |
| <b>Ostadar SKT - Zumaiako FT</b><br>Igandea. 16:00. Michelinen.               |
| <b>ERREGIONALEN GORENGOA</b>  |
| <b>Ostadar SKT - Urnieta KE</b><br>Larunbata. 17:15. Michelinen.              |
| <b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>  |
| <b>Ostadar SKT - Euskalduna SD</b><br>Larunbata. 15:30. Michelinen.           |
| <b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>   |
| <b>Billabona KE - Ostadar SKT</b><br>Larunbata. 17:45. Arratzain, Villabonan. |
| <b>JUBENILEN 1. MAILA</b>   |
| <b>Billabona KE - Ostadar SKT</b><br>Larunbata. 15:30. Arratzain, Villabonan. |
| <b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>  |
| <b>Ostadar SKT - Real Union Club SAD</b><br>Igandea. 13:00. Michelinen.       |
| <b>KADETEEN 1. MAILA</b>  |
| <b>Zarautz KE C - Ostadar SKT A</b><br>Igandea. 17:30. Asti-txiki, Zarautzen. |
| <b>Ostadar SKT B - Euskalduna SD</b><br>Larunbata. 13:30. Michelinen.         |

|  |
|--|
| <b>INFANTILEN OHOREZKO MAILA</b>   |
| <b>Ostadar SKT - Real Sociedad SAD</b><br>Larunbata. 12:00. Michelinen.        |
| <b>INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA</b>                                       |
| <b>Ostadar SKT - Hernani</b><br>Igandea. 14:30. Michelinen.                    |
| <b>INFANTILEN 1. MAILA</b>   |
| <b>Ostadar SKT A - Antigua Luberri KE</b><br>Larunbata. 10:30. Michelinen.     |
| <b>Texas Lasartearra CF - Danena KE</b><br>Igandea. 10:30. Michelinen.         |
| <b>Euskalduna SD - Ostadar SKT B</b><br>Larunbata. 09:30. Ubitarte, Andoainen. |
| <b>INFANTILEN F-8</b>  |
| <b>Euskalduna SD - Ostadar SKT B</b><br>Igandea. 10:30. Ubitarte, Andoainen.   |
| <b>ARETO-FUTBOLA</b>   |
| <b>HERRIKO TXAPELKETA</b>  |
| <b>Asador Irigoien - Izen gabe</b><br>Larunbata. 09:15. Michelinen.            |
| <b>Viña del Mar - Patricio Cocktail Bar</b><br>Larunbata. 10:15. Michelinen.   |
| <b>Academia London - Buenetxea taberna</b><br>Larunbata. 11:15. Michelinen.    |

|  |
|--|
| <b>Trumoi taberna - Insausti taberna</b><br>Larunbata. 12:15. Michelinen.                |
| <b>NAZIONALA 3. MAILA</b>  |
| <b>Antiguoko KE - Lagun Onak CDA</b><br>Igandea. 12:00. Pio Baroja kir., Donostian.      |
| <b>GIPUZKOAKO SENIORRA</b>   |
| <b>Aldaz Klinika - Aurrera KE</b><br>Ostirala. 20:50. Kiroldegian.                       |
| <b>Garao Taberna - Eskoriatza KE</b><br>Igandea. 11:00. Kiroldegian.                     |
| <b>GIPUZKOAKO 2. MAILA</b>   |
| <b>Mondrate CD - Futsal Isu Leihoak</b><br>Larunbata. 17:00. Iturripe kirol., Arrasaten. |
| <b>GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA</b>  |
| <b>Bar Lasarte - Zarautz KE</b><br>Larunbata. 11:20. Kiroldegian.                        |
| <b>GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA</b>   |
| <b>Laskorain KE - Balerdi Harategia</b><br>Larunbata. 09:00. Usabal kirol., Tolosan.     |
| <b>SASKIBALOA</b>  |
| <b>SENIOR EMAKUMEZKOAK</b>   |
| <b>Bera Bera Gros - Ostadar SKT</b><br>Larunbata. 20:00. Manteo kirol., Donostian.       |
| <b>SENIOR HIRUGARREN MAILA</b>   |
| <b>Ostadar SKT - Kurkubi SBK</b><br>Larunbata. 16:00. Kiroldegian.                       |

|  |
|--|
| <b>JUNIOR ERRENDIMENDUA</b>  |
| <b>Atl. San Sebastian Anie - Ostadar SKT A</b><br>Larunbata. 16:00. Aiete kirol., Donostian.   |
| <b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>  |
| <b>Ostadar SKT A - Eskoriatza KE</b><br>Larunbata. 16:00. Kiroldegian.   |
| <b>KADETE PARTEHARTZEA</b>   |
| <b>Atl. San Sebastian Aiburri - Ostadar SKT B</b><br>Larunbata. 10:45. Aiete kirol., Donostian.  |
| <b>PILOTA</b>  |
| <b>PROFESIONALAK, BIKOTEKA</b>   |
| <b>Arteaga II eta Ibai Zabala - Laso eta Eskiroz</b><br>Larunbata. 18:00. Vall d'Hebron pilotalekua, Bartzelonan.  |
| <b>LASTERKETA</b>  |
| <b>KROS MISTOA</b>   |
| <b>Hainbat herritarrek bikote mistoen krosean parte hartuko dute.</b><br>Igandea. 11:30. Zarautzen.  |
| <b>TXIRRINDULARITZA</b>  |
| <b>PISTA</b>   |
| <b>Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak Bio Racer-Oiartzun Bike Pista Sarian parte hartuko dute.</b><br>Larunbata. 15:30. Antonio Elortza belodromoa, Donostian. |

|  |
|--|
| <b>ERRUGBIA</b>  |
| <b>OHOREZKO B MAILA</b>  |
| <b>Getxo Artea RT - Babyauto Zarautz RT</b><br>Larunbata. 17:00. Getxon.   |
| <b>EUSKAL LIGA</b>   |
| <b>La Rioja RT - Babyauto Zarautz Beltzak RT</b><br>Larunbata. 18:00. Logroño, Errioxan.   |
| <b>18 ETA 16 URTE AZPIKOAK</b>   |
| <b>Univ. Bilbao- Babyauto Zarautz Beltzak</b><br>Larunbata. 12:15 eta 13:30. Bilbon.   |
| <b>14 URTE AZPIKOAK</b>  |
| <b>Babyauto Zarautz Beltzak - Arrasate RT</b><br>Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.  |
| <b>IGERIKETA</b>   |
| <b>NEGUKO LIGA</b>   |
| <b>Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta seniorrek Neguko Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute.</b><br>Larunbata. 16:00. Hernanin. |
| <b>ALEBINAK</b>  |
| <b>Buruntzaldea IKT-ko alebinek Ligako 3. jardunaldian lehiatuko dute.</b><br>Larunbata. 16:00. Allurralde kirol., Andoainen.              |

# Hirugarren laurdenean desorekatu dute partida

Denboraldiko seigarren garaipena lortu du Gipuzkoako 1. mailako taldeak, eta bigarren da sailkapenean. Gogotik izerditu eta gero, hirugarren laurdenean egin dute ihes markagailuan, eta erraz irabazi diote Atletico San Sebastiani: 70-44

## Txintxarri

Beste garaipen bat zakura. Denboraldi honetako seigarrena. Zazpitik sei. Bigarren postua sailkapenean. Denboraldia ederki hasi du Gipuzkoako 1. mailan lehiatzen ari den Ostadar SKTk. Orain arteko partida ia guztiak irabazi baditu ere, horrek ez du esan nahi lana egin behar izaten ez dutenik. Asko, gainera. Pasa den larunbateko norgehiagokan, adibidez. Hirugarren laurdenera arte ez zuten ihes egin urdin-beltzek. Partzial ederra sartuta, 26 puntugatik irabazi zuten azkenean Atletico San Sebastianen kontra: 70-44.

Hasieratik ikusi zuen Ander Otaegi entrenatzaileak aurkaria baino hobeak zirela. "Baina kosta egiten zitzaigun baloia saskiratzea. Aurreneko bi laurdenetan jaurtiketa erraz batzuk huts egin genituen". Edonola ere, sei puntuko aldearekin joan ziren urdin-beltzak atsedendira.

Hirugarren laurdenean erabakigarria suertatu zen. Orduan hasi ziren-eta etxekoak saskiratzeak asmatzen, bata bestearen atzetik. 28-10eko partziala sartuta, partida hautsi zuen Ostadar SKTk.



Ostadar SKTk hainbat jaurtiketa libre egin zituen larunbateko partidari. TXINTXARRI

Laugarren zatian, markagailuan alde nabarmena edukita, abantaila hori kudeatzen jarri zuten indarra seniorrek.

## Bolada onarekin jarraitu

Iaz Lauko Finalera sartzea lortu zuen taldeak, eta itzarotekoa zen aurten ere fin ibiltzea. Baina ez "horren ongi", Otaegiren hitzetan. "Sekulako balantzea dugu. Ea gai garen horri eusteko".

Bolada on horrekin jarraitu nahi du taldeak. Gabonetako atsedendialdiaren aurretik bi

partida garrantzitsu dituzte jokatzeko; Oiarso eta Luberriren aurka.

Talde gaztea izanik, jokalaria asko ikasleak dira, eta horregatik da garrantzitsua urtarilerara arte erritmo horri eustea. "Asko unibertitatean daude, eta azterketak izango dituzte aste horietan". 11 jokalaria daude taldean, eta lauk kanpoan ikasten dute, beraz, ez dute entrenamenduetan parte hartzen. Juniorreko taldekideekin osatzen dituzte saioak; modu horretan, jautzia eman behar dutenerako trebatuak daude.

## Buruntzan, lehen urratsak

Belarmeta taldeak lehen irteera egin zuen larunbatean, Buruntza mendira. Dozena bat lagun baino gehiago animatu ziren, eta mendi puntako gurutzerainoko bidea egin zuten.

Edonola ere, dagoeneko hasi dira hurrengo irteerak prestatzen. Abenduaren 15eko larunbatean egin nahi dute hurrengo txangoa. Oraindik baieztatzeko badute ere, Onddi eta Adarra mendiak lotu nahiko lituzkete.



BELARMETA

## Zozketa! Ttakuneko bazkide zara?

Gure bazkideen artean zozkatuko ditugu!

**Bi sarrera bikoitz PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTTSek** abenduaren 15ean Usurbilen eskainiko duten emanaldirako.

**\*ARGIAren alde**

DIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)  
**ABENDUAK 15, LARUNBATA**  
bi saio: 16:00 eta 18:30  
Sarrerak: Aurretik 7 euro  
Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

**PIRRITX PORROTX MARIMOTX MUSUA**

Lan berriaren aurkezpen emanaldia

Eskuratu zure sarrera:  
☎ 943 37 15 45  
azoka@argia.eus

Antolatzailea:  
Argia - Abenduaren 15eko Usurbilen Taldea

\*ARGIA

\*Eman izena abenduaren 10a baino lehen (ARGIA)

## Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako SASKI EDER BAT

- Oliiba-olio birjina estra
- Ozipina \*
- Mahats-zukua \*
- Orburu bihotzak
- Piper txorizero mamia
- Potxak
- Ardo beltza \*
- Zainzuri zuriak
- Arbendolak
- Borraja \*
- Pikillo piper osoak
- Melokotoia
- almibarretan
- Tomate frijitua



\*ekologikoa

\*Eman izena abenduaren 17a baino lehen (SASKIA)

## GUGGENHEIM Bilbao museorako 2 sarrera

(abenduaren 30erako soilik baliagarriak)



\*Eman izena abenduaren 17a baino lehen (MUSEOA)

\* Eman izena: harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.



Bazkideztza informazioa



@TtakunKE

# Asier Pozo, bigarren Genevako Lau Egunetan

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako juniorra Suitzan egon da asteburuan, nazioarteko pistako txapelketa batean. Proba guztietan lehen sailkatuekin batera iritsi da, eta horri esker lortu du merezitako bigarren postua sailkapen orokorrean

## Txintxarri

Euskal Herriko errepide eta pistetan bakarrik ez, nazioartean ere badaki ongi lehiatzen Asier Pozo Lasarte-Oriako txirrindulariak. Euskadiko Selekzioarekin Genevan egon da joan den asteburuan, Suitzan. 11 proba jokatu ondoren belodromoan, Genevako Lau Egunetan merezitako bigarren postua eskuratu du.

Lasterketa guztietan lortu du aurrekoekin batera egotea, eta erregulartasun horrek eman dio saria. Suitzako Damien Fortis txirrindulariak bakarrik lortu du Pozok baina puntuazio hobea.



Asier Pozo, Euskadiko elastikoarekin, podiumean. EUGENIO POZO

## Larunbatean hasiko da areto futboleko herriko txapelketa

Hastear da herriko areto futboleko torneo. Bederatzi taldek osatutako txapelketa izango da aurtengoa. Lehen partidak larunbatean jokatuko dituzte. Sportmadness enpresa da txapelketaren antolatzailea.

Partidak larunbat goizean izango dira, Michelingo kirolgunean. Astero talde batek izango du atsedena. Lehen zatian ligaxka bat jokatuko dute, eta, bigarrenean, hoberen sailkatutakoen artean erabakiko da torneo, kanporaketan bidez. Besteek kontsolazio txapelketa jokatuko dute. Finalak ekainaren 1ean izango dira.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Zumaitik Getariara ipar martxan

Ostadar Ipar Martxako kideek larunbatean saio polita egin zuten. Topoa hartu eta Zumaia-Getaria-Zumaia ibilbidea osatu zuten. Ibilbidea gorabeheratsua zen, horregatik, B plana ere bazuten; ibaitik itsasora egin zuten paseoa. Bukaeran, denak elkartu ziren talde argazkia ateratzeko.

## "ATERPEA" Lasarte-Oria 2018

# VI PINTXO BIDEA

## Azaroak 30, Abenduak 1 eta 2

**Ostirala**  
19:00-21:00

**Larunbata**  
Eguerdia eta  
19:00-21:00

**Igandea**  
Eguerdia



**ARAETA Sagardotegia**  
Olagarro azpizuna patata gofre gainean, baratxuri samur alioliaz jantzita



**ARKUPE taberna**  
Kaneloi lepapea patata krema eta haragi erreduzituarekin



**LASARTE Taberna**  
Tromso. Bakailao-brandada txipiroi-ogi gainean.



**BUENETXE Taberna**  
Zapore ugarko ehiza, brie gazta gainean eta gerezzi beltzekin



**EGUZKI Taberna**  
Arkume-esku piper-beteak ondo saltsarekin



**TXARTEL Kafetegia**  
Hanburgesa pintxo. Hanburgesa bikia ogi kurruskari gainean pantumaka, alioli eta bacon errulo eta perrebixioekin



**LAVIE Gastrotaberna**  
Lavie Corneto. Pisto mina, bakailao-brandada, oliña beltza eta bakailao kurruskari-emultsioa



**VIÑA DEL MAR kafetegia**  
Itsas asuntxoak espagietekin

PINTXO  
"ATERPEA" 2€

200€ lor ditzakezu  
erosketa-bonoetan!

Lasarte-Oria, herri gastronomikoa



## ZORION AGURRAK



**Aitor**  
Zorionak Aitor!! Zein politik izan diren 6 urte hauek zurekin!! Askok maite zaitugu. Zure familia partetik. Muxuakkk.




**Leire**  
Zorionak prexioxa....10 muxu erraldoi, eta oso ondo pasa zure urtebetetzean. Aiton-amona eta familien partetik, asko maite zaitugu.




**Maider**  
Zorionak Maider!!! Ondo ospatu zure urtebetetzea, eta oso ondo pasa zure eguna, familiaren partetik!!!! Maite zaitugu.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 30




Larunbata, 01




Igandea, 02




Astelehena, 03



Asteartea, 04



Asteazkena, 05



## HILDAKOAK

**Miren Zubeldia Iregi.** Azaroaren 28an.  
**Miguel Ángel Campo Redondo.** Azaroaren 27an.  
**Manuel Fernández Rodríguez.** Azaroaren 26an.  
**Juan Sanchez Gonzalez.** Azaroaren 25an.  
**Iñaxi Etxeberria Uranga.** Azaroaren 23an.  
**Orencio Ruesga Jorde.** Azaroaren 23an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

|                |                 |
|----------------|-----------------|
| Ostirala, 30   | ACHA-ORBEA      |
| Larunbata, 1   | LASA            |
| Igandea, 2     | LASA            |
| Astelehena, 3  | URBISTONDO      |
| Asteartea, 4   | GANDARIAS-URIBE |
| Asteazkena, 5  | ORUE            |
| Osteguna, 6    | ACHA-ORBEA      |
| Ostirala, 7    | LASA            |
| Larunbata, 8   | GIL             |
| Igandea, 9     | GIL             |
| Astelehena, 10 | LASA            |
| Asteartea, 11  | DEMIGUEL        |
| Asteazkena, 12 | URBISTONDO      |
| Osteguna, 13   | GIL             |

## EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

## Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GIJURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

## Erketzen Eguberri errondako entseguak

Erketz EDT taldea abenduaren 24ean herriko baserrietatik kantari irtengo da. Hitzordua prestatzeko bi entsaio egingo ditu abenduaren 13 eta 20an 20:00etan taldeko lokalean, KZgune ohia.

## Beltzak taldeko zestoa

Beltzak Errugbi Eskolako zesto handia abenduaren 21ean zozketatuko dute, ONCEko zozketaren azken lau zenbakiekin. Errifak taberna laguntzailetan daude.

## Biyak Bat elkarte loteria

Biyak Bat elkarteak jakin arazi nahi du bazkideek Gabonetako loteria erosteko aukera izango dutela. Horretarako bazkide txartela erakustea ezinbestekoa izango da.

## San Tomaseko postua

Abendua gertu dugu, eta Ttakun elkarteak Kultura saila San Tomas eguneko azoka prestatzen hasi da. Arratsaldean egingo da azoka; postua jarri nahi duten herritar edo elkarteek abenduaren 15a baino lehen eskaera egin behar dute. Bi baldintza bete behar dituzte: batetik, eguneko giroan txertatzea, hau da, baserriarrez jantzia joatea. Bestetik, harrera euskaraz egitea. Izen ematea egiteko [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) helbidera mezua bidali behar dute interesatuek; elkartearen izena edo taldearen arduradunaren izena eman behar da. Kultura saileko arduraduna ahal duen azkarren jarriko da harremanetan interesatuekin.

## GUTUNAK

## Boluntarismoa (beti boluntarismoa) zabor bilketaren koskan

## IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA

Hasteko, zoriondu ditzadan Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrandieta erraustegi hondatzailearen kontra, epaiak epai, egindako lan ona eskertzeko! Lasarte aldamenean dugun erraustegi egitasmoak piztu duen gogoeta bat da munstro horrek elikatzea eskatzen duela, alegia, zaborra beharko duela funtzionatzen jarraitzeko. Alde horretatik, oso tentagarria izango zaie agintari batzuei zaborren birziklapenean herritarrek lotaraztea/alfertzea eta,

are, zaborra inportatzea, munstroa ase dadin.

Etxera noala, bizilagun batzuk ikusi ohi ditut gertuen dagoen lurpeko errefusen zuloa zakarra eramaten, eroso, hondakin guztiak poltsa berean sartuta (belaunaldi kontua izango ahal da bakarrik!). Batzuk txintxo-txintxo (tonto-tonto...) aritzen gara hondakinak sailkatzen, eta ataritik 50 metrora dauden edukiontzietara eramaten, uda izan, negua izan. Inoiz erraustegia egiten bada, egoera horrek ez du hobetzeko antzik (perbertsioak horrela jokatzeko baitu, munstroak jan egin behar...).

Beste zenbait herrialdetan, berriz (Norwegian, Estatu Batuetako estatu

batzuetan), botilak itzultzea saritu egiten da, esate baterako, aleko zentimo batzuk itzuliz bederen. Bada zerbait, batek baino gehiagok irabazi pixka bat dakarkiola sentituko du, edo lagunaren artean kontatzeko beste badela behintzat. Gurean, ordea, ez dago antzeko eskemarik, konposterako esaterako. Zergatik ez saritu ahalegin hori zabor-bilketaren urteko prezioetik kenduta? (Zertarako, bestela, txipa?)

Zentimoak (eta gehiago) toki guztietatik kentzen ari zaizkigun ataka honetan, boluntarismoa motz geratzen da: bitartekoak jarri beharko lirarteke gauzak gertatzeko (jendea bultzatzeko), ez baita berdina ahalegintzea eta ez ahalegintzea.

Hurrengo  
txintxarri  
aldizkaria  
abenduaren 14an  
kaleratuko dugu

Bidali jakinarazpenak, oharrak,  
zorion agurrak, gutunak...  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)-era edota  
whatsapp bidez: 688 68 35 10

**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUAN EMAN

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen dut. Telefonoa: 648 200 811.

### LANA

#### ESKAINZA

Lasarte-Oriako taberna batean astebururako zerbitzaria behar da. Interesa duten pertsonak 666 461 595 zenbakira deitu.

### ESKARIA

Prest nago edozein gauzatan lan egiteko, hala nola, adineko pertsonak zaintzeko, edo baserriko lanak egiteko. Telefonoa: 643 23 75 10.

Pertsona eskaintzen da etxean edo ospitalean pertsona adinduen zaintza

egiteko, baita gauetan ere. Etxeko lanak ere egingo lituzke. 632 198 705.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik gabea. Prezio interesgarria. 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara deitu.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00   | 08:10    | 08:15     | 08:20    |
| 08:40   | 08:50    | 08:55     | 09:00    |
| 10:30   | 10:40    | 10:45     | 10:50    |
| 11:00   | 11:10    | 11:15     | 11:20    |
| 11:30   | 11:40    | 11:45     | 11:50    |
| 12:05   | 12:15    | 12:20     | 12:25    |
| 12:30   | 12:40    | 12:45     | 12:50    |
| 13:00   | 13:10    | 13:15     | 13:20    |
| 13:30   | 13:40    | 13:45     | 13:50    |
| 16:30   | 16:40    | 16:45     | 16:50    |
| 17:00   | 17:10    | 17:15     | 17:20    |
| 19:30   | 19:40    | 19:45     | 19:50    |
| 20:00   | 20:10    | 20:15     | 20:20    |

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

#### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

#### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Mailu Arruti, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

#### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Naiara Goikoetxea.

#### Informatikoa

Beñat Gonzalez

#### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# ERAIKUNTZA BERRIA SALMENTAN! ZABALETA BERRIN

Hitzartutako etxebizitzak. Baldintzarik gabe.

Donostiatik  
6' tara soilik

DONOSTIALDEKO  
PREZIORIK  
ONENA



ETXEBIZITZA



GARAJEA



TRASTELEKUA



SUKALDEA



ARMAIRUAK



PERTSONALIZATUA

3 LOGELA + GARAJEA  
+ TRASTELEKUA

218.500€ tik  
+BEZa

250 familia baino gehiagok gozatzen dute  
Lasarteko **INGURU NATURAL** paregabe honetan.

INFORMA ZAITEZ

943 36 89 42  
[www.zabaletaberri.es](http://www.zabaletaberri.es)

Arrazoi tekniko, juridiko edo komertzialengatik informazio hau aldatua izan daiteke.

residencial

**zabaleta** (berri  
bizigunea

